

Afari batekin ospatuko dute 50 urteko lankidetza**EROSKI -K 250 BAT BAZKIDE ELKARTUKO DITU BILBON, 50. URTEURRENA OSPATZEKO**

- Bilboko alkateak, Juan Mari Aburtok, ekitaldian parte hartuko du
- Bezeroari kalitatezko produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko elkarrekin egin duten bidea aitortzeko modu bat da
- Iaz eginiko erosketen %98 Espainiako 11.000 hornitzaileei egin zitzaizkien

Bilbo, 2019ko urriaren 22a.- [EROSKI](#) ik jarraitzen du 50. urteurrena ospatzen, eta arratsalde honetan hornitzaileen txanda izango da. Kooperatibak afari bat antolatu du Eneko Atxa sukaldari dela, eta 400 lagun inguru bilduko ditu Bilboko Euskalduna jauregian. Bilboko alkatea bera ere, Juan Mari Aburto, hor izango da EROSKIren ordezkariekin batera.

Hitzordu horretan, EROSKIren historian izan diren mugarri nagusiak errebasatuko dituzte. *"Pentsatuko duzuen bezala, EROSKIren funtsezko zati zaretenekin ospatu nahi izan dugu mende erdi bete izana; izan ere, ezinbesteko pieza zarete proiektu honetan, gure jardueraren konplize. Historia horretan, erronka eta desafio ugari izan ditugu gizarteko aldaketetara egokitzeko, eta bertan, lankidetza pixkanaka handituz joan da, elkarrenganako konfiantzari eta emaitzei esker. Lankidetza izan da EROSKIren balio ukaezin bat, eta ikuspegi horrekin heldu izan diegu beti gure harremanei; horrek balioa sorrarazi du modu iraunkorrean, eta funtsezko palanka bihurtu da gure jardunean; gainera, giltzarrizkoa da gure bezeroei zerbitzu hobea eta kalitatezko produktuak eskaintzeko",* esan du EROSKIko presidentek, Agustin Markaidek.

Etorkizuna bera ere hitzorduaren parte da. *"Gure historia elkarrekin eratzen jarraitu nahi dugu. Etorkizunak aurrean erronka gehiago jarriko dizkigu, eta gaitasun berriak geureganatu beharko ditugu. Eragin izugarria duten erronkak ditugu aurrean, eta anbizioz eta elkaturik heldu behar diegu, elkarrekin eta bakoitzak bere aldetik ditugun gaitasunetatik onenak hartuta, gero eta gehiago eskatzen duen gizarte bateko norbanakoaren emozioekin bat egiteko. Hortaz, gero eta larriagoak diren gaietan gero eta elkar ulertze eta konpromiso handiagoa izango dugun*

EROSKI

MKCOM – Komunikazio korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA****CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

etorkizun baterantz goaz", azaldu du EROSKIren zuzendari komertzialak, Beatriz Santosek.

Hornitzaileekin dugun gastuaren %98 Espainiako enpresei dagokie

EROSKI lanean ari da 11.000 hornitzaile komertzial eta zerbitzurekin; iaz, 2018an, 4.000 milioi euro baino gehiagoren erosketak egin zizkien. Hala, 107.000 artikulutik gora merkaturatu ziren azken urtean.

EROSKIk Espainiako ekoizpen ehunarekin duen konpromisoa agerikoa da, hornitzaileekin egiten den gastuaren %98 Espainian dauden enpresekin eginak baitira. Horretaz gainera, hurbileko kontsumoa bultzatzen saiatzen da, eta tokian tokiko eta eskualdean eskualdeko hornitzaileekin kolaboratzen; horiek dira guztizkoaren erdia baino gehiago.

OHARRA: 20:30EAN, TOPAKETAREN IRUDIREN BAT ZABALDUKO DUGU.

EROSKI

MKCOM – Komunikazio korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)